

DURANGO
Udala • Ayuntamiento
.....
Bulego Tekniko
Oficina Técnica




Irizpide eta helburuak
Criterios y objetivos

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

AURKIBIDEA:

A.	DOCUMENTUAREN AURKEZPENA	2
_____	A.1. Aurrekariak	2
_____	A.2. Planeamendu orokorra berrikusteko prozesua eta HAPO berria idaztea	4
B.	AURRERAPEN DOKUMENTUA ETA BERE PROPOSAMENAK. HAPO BERRIAN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK HARTZEA	6
_____	B.1. Sarrera	6
_____	B.2. Helburu eta irizpide orokorrak eta hiri-eredua	7
_____	B.3. Ingurumenako eta garapen jasagarriko helburu eta irizpideak	8
_____	B.4. Ingurune fisikoaren plangintzaren helburuak betetzeko irizpideak	11
_____	B.5. Hiri-ingurunearen plangintzari buruzko helburu eta irizpideak	12



A. DOCUMENTUAREN AURKEZPENA

A.1. Aurrekariak

2019ko uztailaren 17an udalbatzak hala adostuta, Durangoko Udalak indarrean zeuden Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak (aurrerantzean, UPAS) berrikusten hasia onartu zuen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bitartez (aurrerantzean, HAPO). Era berean, HAPOaren idazketaren prozesuan lagunduko dion herritarren partaidetzarako programa onartu zen. Hori guztia 58/2021/BT zenbakidun udal espedientean jasotzen da.

Indarrean zeuden UPASak behin-betiko onartu ziren 2003ko irailaren 12ko 676/2003 eta 2005eko urtarrilaren 14ko 76/2005 Foru Arauen bitartez, eta 2005eko apirilaren 25eko 77. BAOean argitaratu zen.

UPASek 1.2.2 artikuluan aurreikusten zuten berrikuspena adostea, egoera hauetakoren bat emanez gero:


- a) Biztanleriaren edo haren hazkunde indizearen aurreikuspenei dagokien aldaketa adierazgarria.
- b) Arauetan aurreikusitako bizitegi-lurzoruaren % 50 agortzea dentsitate ertain edo handiko hiri-lurzuruan edo lurzoru urbanizagarrian.
- c) Biztanleriaren hazkunde indizeetan aldaketak ekartzen dituzten azpiegitura eta ekipamendu orokorretako aurreikuspen espazialen aldaketak.
- d) Industria zentroen instalazio aurreikuspenen aldaketa orokorra.
- e) Lurraldeko Plan Partzial bat edo hura berrikustea eskatzen duen Lurralde Plan Sektorial bat onartzea.

Nolanahi ere, Arau Subsidiario horiek indarrean sartu eta 8 urtera berrikusi beharko zirela jasotzen zen.

Bestalde, 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari (aurrerantzean EZH) buruzkoak, ezabatu egin du Plangintzako Arau Subsidiarioen figura, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorri esleitu dio udalerri bakoitzaren egiturazko hirigintza-plangintzaren erantzukizuna. EZHren Bigarren Xedapen Iragankorraren arabera, plan orokor eta arau subsidiario guztiak lege horren xedapenetara egokitu behar dira, 8 urte igaro aurretik (hamabost urtera zabaldu zuen 2014ko urriaren 2ko 2/2014 Legeak).

Denbora horretan aldaketak izan dira indarrean dagoen hirigintzaren legedian. Estatuan indarrean sartu zen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Errege Dekretu legegilea, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko testu bategina onartu zuena, eta mugari berri eta garrantzitsua izan da Estatuko hirigintzako oinarriko araudiaren bilakaeran. Erkidegoan, 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak eta bere araudiak, aldaketa garrantzitsuak ekarri dituzte hirigintzako planteamenduan, hainbat puntutan: plangintzaren izapidea, garapen jasagarria, hirigintzako estandarrik, babes ofizialeko erregimenen batean dauden etxebizitzaren gutxieneko zenbatekoa, eraikigarritasun ponderatu eta batez bestekoagatik aprobeitxamendu motaren kontzeptuaren ordezkapena eta abar.

UPAS indarrean sartu zenetik, lurraldearen eta sektorearen antolamendurako hainbat dokumentu onartu dira, eta haien artean hauek dira nabarmenezkoak: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Gidalerroak (LAG) (128/2019 Dekretua), Durangaldeako Eremu Funtzionaleko Lurralde plan Partziala (LPP) (182/2011 Dekretua), Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzari buruzko Lurralde Plan Sektoriala (LPS) (177/2014 Dekretua), Jarduera Ekonomikoetarako eta



Merkataritza Ekipamendurako Egokia den Lurzorua Sortzeko Lurraldeko Plan Sektoriala, Merkataritzarako Establezimendu Handien Lurralde Antolaketa 10/2019 Legea, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren 7/2021 Legea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Ekonomikorako 4/2019 Legea.

Indarrean dauden UPASak idatzi zirenetik, euskal gizarteak aurrerapen handiak izan ditu ingurumenarekiko eta garapen jasangarriarekiko errespetuzko pentsamendua izan duelako. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Esparruko Programak, Udaltalde 21 ekimena eta Udalsarea 21 udalerrien sarea mugariak dira hirigintzako planteamenduaren barruan egon behar diren gizarteko alor guztietan pentsamendu hori txertatzeko.

Aurrerapen horien ondorioz nazioarteko konpromisoak hartu ziren 2015eko Nazio Batuen Batzar Nagusian, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko, Garapen Jasangarriko Agenda 2030en bitartez, eta, hala, mundu bidezkoago, ekologikoago, oparago eta solidarioagoa lortzeko.

Hori dela eta, 2030 Agendak eta GJHak Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroen (LAG) erreferentziazko esparru-estrategia bihurtzen dira eta lurralde antolamendua betetzeko gakoak jasotzen dira bertan. Hala, 17 GJHen artean batzuek eragin nabarmena dute hiri eta herrien plangintzan eta hiri-antolamenduan, 11.ak batez ere: "Hiri eta Komunitate Jasangarriak". Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izan daitezten lortu behar da, horregatik, bereziki garrantzitsua da HAPOen garapenean.


Halaber, HAPO garatzerakoan kontuan izan beharreko beste GJH batzuk ere badaude, esaterako 13.a: "Premiazko neurriak hartzea, gure hiriak klima-alaketaren eta bere eraginen aurka egiteko egokitzuz". Eta 15.a: "Basoak modu jasangarrian kudeatzea, desertifikazioaren aurka borroka egitea, gure lurren degradazioa gelditu eta alderantzizkatzea, eta biodibertsitate geologikoaren galera baretzea". Eta 9.a: "Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria sustatzea eta berrikuntza sustatzea". Era berean, ezin dugu ahaztu gainerako GJHei HAPOn duten zeharkakotasuna.

Azkenik, Durangoko HAPO egiteko 2016an egin ziren oinarri estrategikoak ere ezin dira alde batera utzi, haien 2030erako ibilbidearen ikuspegiak bat egiten baitu erabat GJHekin.

Ikuspegi berritik aztertzen baditugu baliabide naturalen eta lurraldean eskuragarri dauden zoruen kontsumoa, planteamenduaren garapenak ingurumenean duen eragina eta mugikortasuna eta garraioa, besteak beste, beharrezkoa da udal planteamendu orokorraren inguruko gogoeta berria egitea, pentsamendu horrekin koherentea izan dadin.

Klima-alaketaren egungo egoerak eta gure gizartearen jasangarritasun ekonomikorako zailtasunak ere eragiten dute hiriko plangintzan aldagai horiek premiaz sartu behar izatea. Hala, derrigorrez betetzeko hainbat irizpide daude klima-alaketaren eta trantsizio energetikoaren 2021eko maiatzaren 20ko 7/2021 Legean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun energetikorako 2019ko otsailaren 21eko 4/2019 Legean. Helburua hiri eta udalerrir erresilienteagoak planifikatzea da etorriko diren aldaketen aurrean.

Beraz, proposamen berriak planteatu behar dira, Durangoko herritarren egungo beharrak asetzeko, baina etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna ahaztu gabe, eta uneoro gogoan izanez gure ekintzek lurraldean uzten duten azterna. Kudeaketa-eredua aldatzeak bitarteko fisikoaren, paisaiaren, ondare natural eta kulturalaren, landa-habitataren eta hiri-habitataren gaineko gogoeta egitea dakar, eta bereziki esanguratsuak izango dira etxebizitza berrien beharra, hiri-berroneratzea, ekonomia-jardueretarako lurzoruak eta mugikortasuna. Erabaki guztietan kontuan izan beharko da zeharkako gaiak sor daitezkeela, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldeketa,



osasuna edo euskara, bai eta herritarren parte-hartze egokia ere, ahal de heinean herritarrekin adostutako irizpideak ezartzeko.

A.2. Planeamendu orokorra berrikusteko prozesua eta HAPO berria idaztea

Plangintza orokorraren berrikuspena (indarrean dauden UPAS) eta HAPO berriaren idazketa honako fase hauek dituzten lan-prozesua osatzen dute:

- **Aurretiazko faseak.** Informazioa eta diagnostikoa. Egungo egoera aztertzea.

Durangoko egoera ezagutzea eta diagnostikatzea du helburu, baita HAPO berriarekin eta proposamen posibleekin zerikusia duten alderdi guztiak ezagutzea eta diagnostikatzea ere. Fase horretako lanak 2030eko Durangorako oinarri estrategikoei buruzko lanaren bidez egin ziren, eta 2016an egindako partaidetza-diagnostikoaren ondoren ezarri ziren. Izan ere, HAPO funtsezko eta beharrezko elementua da etorkizuneko Durangorako ekimen estrategiko horiek gauzatu ahal izateko.

Elementu nagusi horren inguruan, hainbat azterlan eta plan egin dira Durango 2030eko oinarri estrategikoekin lotuta: Durangoko zarata-mapa (2016), irisgarritasunerako udal-plana (2021), Durangoko sare-berdeko paisaiaren ekintza-plana (2017), mugikortasun iraunkorreko plana 2010-2025.

- **Lehenengo fasea. HAPOren Aurrerapenari buruzko herritarren partaidetza-prozesua** 2020an eta 2021ean garatu zen (inkestak, elkarrizketak, saio didaktikoa eta gaikako tailerrak). Bestalde, fase honetan **genero-ikuspegia HAPOren aurrerapen-fasean txertatzeko prozesua** bete da ere (2020ko ekainetik 2021eko otsailera).

Fase honen helburua da diagnostikotik eta eskura dauden azterlanetatik eratorritako proposamenak ezagutaraztea. Era berean, herritarren partaidetza-prozesuaren bidez udalerriko hiri-eredu berriari buruzko iritziak eta proposamenak jasotzeko, hiriaren eta auzoen egungo eta etorkizuneko arazo, behar eta erronkak; eta, ondoren, Aurrerapen dokumentua idazteko.


Bi prozesu horien emaitzak eta ondorioak eskuragarri daude hemen: partehartu.durango.eus.

- **Bigarren fasea.** Aurrerapena idaztea eta jendaurrean jartzea.

Aurrerapen-dokumentuaren lanketa bat dator diagnostikoaren oinarriekin, Durango 2030erako oinarri estrategikoekin eta aipatutako azterlan eta planetkin, bai eta **Durangoko metabolismo demografikoaren eta etxebizitzaren erabileraren azterketarekin** ere (2021ean egina). Horiek aurrerapen-fasean egindako herritarren partaidetza-prozesuetako proposamenekin osatu dira. Aurrerakinak partaidetza-prozesuetan ondorioztatutako antolamendu-aukeren balorazioa eta lehentasuna jaso ditu, prozesu horietan jasotako balorazio-proposamen eta -iradokizunekin osatuta.

Dokumentua idatzi aurretik, 2021eko otsailaren 4an, babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta natura-ingurunearen arloetan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Foru-Aldundiko organoei informazioa eskatu zitzaion. Eman beharreko informazioa Durangon dauden arriskuei buruz eta antolamenduak errespetatu beharreko ingurumen-baldintzei, kultura-ondarearen babesari eta natura-ingurunearen babesari buruzkoa da. Txosten horiek espedientean jasota daude.

Aurrerapena ingurumen-ebaluazio estrategikoaren hasierako dokumentuarekin osatzen da (aurrerantzean, IEE).



Aurrerapena idatzita, Udalak, Alkatetzaren ekainaren 6ko 2022/1798 Dekretuaren bidez, Durangoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerakina 2022ko irailaren 30era arte jendaurrean jartzea erabaki zuen. Horrela, egoki iritzitako iradokizun eta aukera guztiak aurkeztu ahal izango ziren. Aldameneko udalei ere bidali zitzairen, jakinaren gainean egon zitezen, eta jendaurrean azaldu zen edukia, bereziki antolamendu-erabaki estrategikoei eta espedientearen izapidetzean egon litezkeen aukerei buruzkoa.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua eskatzea erabaki zen, eta, horretarako, hasierako dokumentu estrategikoa eta planaren aurrerapen-dokumentua bera aurkezteak.

Urriaren 14an, 2022010139 sarrera-erregistroan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena erregistratu zen, **Durangoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren irismen-dokumentua** formulatzen duena.

- **Hirugarren fasea.** Durangoko HAPOrako irizpideak eta helburuak onartzea.


Fase horretan gaude. Oinarri hartzen du jendaurrean jartzearen ondorioz jasotako iradokizunetan eta ingurumen-organoak ingurumen-azterlan estrategikoa egiteko emandako irismen-dokumentuan jasotako alderdi interesgarrietan.

Jendaurreko erakustaldian 42 iradokizun egin dira (37 iradokizun desberdin) eta aztertu dira. Aztertu dira ere kontsultatutako administrazio publikoen artean espedientearen agertu eta egin dituzten txostenak ere. Azalpenaren eta herritarren eta erakundearen parte-hartzearen emaitzak ikusita, udalak plan orokorra idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak zehaztuko ditu.

Horregatik, dokumentu honek Aurrerapenarekin lotuta aurkeztutako iradokizunak baloratzen dituen eranskin bat erantsi du, dokumentu hau behin betiko idazteko kontuan hartu baitira. Horregatik, HAPOrako berriaren irizpide- eta helburu-proposamen dokumentu honetan sartu dira hala baloratzea merezi izan dutenak.

- **Laugarren fasea.** Durangoko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren behin betiko proiektua idaztea, eta bere ingurumen-azterlan estrategikoa.

Aurrerapena izapidetu eta irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak onartu ondorengo fasea da. Plana idatzi ondoren, HAPOrako behin-betiko proiektua indarrean dagoen hirigintza-legedian aurreikusitako izapideen xede izan beharko da (Plangintzako Aholku Kontseiluaren txostena, hasierako onespina, jendaurrean jartzea, behin-behineko onarpenera, COTPVren txostena, behin-betiko onarpenera). Hori guztia ingurumen-azterketa estrategikoarekin eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa onartzeko izapidearekin batera (ingurumen-adierazpen estrategikoan amaitzen den prozesua).



B. AURRERAPEN DOKUMENTUA ETA BERE PROPOSAMENAK. HAPO BERRIAN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK HARTZEA

B.1. Sarrera

Aurrerapenaren helburu nagusia antolamenduaren irizpide, helburu, aukera eta proposamen orokor egokiak zehaztea eta ezagutaraztea da: jendaurrean jarri ondoren, eta aurkeztu diren iradokizunak eta IEEn irismen-dokumentuaren alderdi garrantzitsuak aztertu ondoren, Durangoko HAPO berriaren behin betiko proiektua egiteko orientabide edo oinarri izan daitezen.

Edukia eta helburuak kontuan hartuta, proposamenak modu irekian eta lehen zehaztapen moduan agertarazten dira. Era berean, hainbat gaietan esku-hartzeko aukera desberdinen berri ematen da. Hirigintza-proposamen zehatzak eta behin betikoak HAPOren behin betiko proiektuan zehaztuko dira. HAPOren memorian, onartuko diren helburuei erantzun beharko dien zehaztapen zehatzak azaldu beharko dira.

Plan Orokor berriaren helburuen xede nagusia desio den hiri-eredua lortzeko parametro orokorrak zehaztea da.

Aurrerakinaren helburua hainbat aukera planteatu eta helburuak horietatik zeinek betetzen dituen hobeto egiaztatzea da. Aurrerakina dokumentuaren helegite edo iradokizunekin osatuko da. Hala, "HAPOren Irizpideak, Helburuak eta Irtenbide Orokorrak" dokumentua egingo da gerora eta Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Nagusia idaztea arautuko du.


Plan Orokorraren helburu berriak diagnostiko parte-hartzailean hautemandako arazoak eta beharrak konpontzeko eta desiratutako hiri-eredua lortzeko proposatzen dira. Hori guztia Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 90. artikulua bainan administrazioei egindako kontsulten emaitzekin, plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko egin den lanarekin eta aurrerakinaren fasean egindako prozesu parte-hartzailearen ondorioekin aberastu da.

Halaber, HAPOk eta hirigunean, eraikuntzetan eta garraioaren azpiegiturretan egindako esku-hartzeek kontuan izan beharko dute klima-aldaketa, klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren 7/2021 Legeak 21. artikuluan arautzen duen moduan. Helburu horiek bete izana, HAPOk izan beharko dituen jasangarritasun energetikoko azterketen bitartez egiaztatuko da, besteak beste, Euskadiko jasangarritasun energetikoaren 4/2019 Legeko 7. artikulua arabera.

Hori guztia egiteko kontuan izan behar dira egungo hiri-erabileren mugak eta onartu diren lurralde antolamendurako tresnen xedapenak (LAG, Durangaldeako Eremu Funtzionaleko LPP eta dagozkien LPSak). HAPO hau haien mende egongo da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 52. artikulua agintzen duen moduan.

HAPOren helburuek udalerriko hainbat arlotako beharrei erantzun behar diete, eta haien hiri-hierarkiaren arabera, arazo eta berezitasunei behar bezalako arreta eskaini beharko diete, dagoen hiriko pieza bakoitza berariaz kontuan hartuz. Bestalde, Plan Orokorrak udalerriko arazoei ere erantzun beharko die bere osotasunean: inguruneari, etxebizitzari, ekonomia-jarduerari, komunikazio-sistemei, eremu libreei eta ekipamenduei, azpiegiturei, etab. Azkenik, udalerriaz gaindiko testuinguruari ere erreparatu beharko dio eta, zehatzago esanda, udalerriak osatzen duen hiri-sistemari, eremu funtzionalaren eta herrialde historikoaren barruan sistema horrek duen zeregina indartzeko proposamenak sustatuz, eta gai jakinetan ondoko udalekin batera lan eginez.

Plan Orokor berria diseinatzeko erabili beharreko irizpideak zehaztutako helburuak betetzeko proposatzen dira.



HAPOrekin lortu beharko liratekeen helburuak eta helburu horiek lortzeko irizpideak zehaztu ondoren, "HAPOren Irizpideak, Helburuak eta Irtenbide Orokorrak" izeneko dokumentuak oinarri ona ezartzen du, Aurrerapenak proposatutako alternatiben artean onena garatu ahal izateko, nahi den hiri-eredua lortzeko, behar bezala zehaztuta eta hobetuta, iradokizunetatik edo txosten sektorialetatik datozen elementu interesgarriak gehituta.

Aurrerapenak eragiten dien gaien ordenari jarraituz, jarraian, HAPOren behin-betiko proiektuaren idazketa bideratu beharko luketen helburuak eta irizpideak azalduko ditugu:

- Helburu eta irizpide orokorrak eta udal-erri-eredua.
- Ingurumen- eta garapen jasagarriko helburuak eta irizpideak.
- Ingurune fisikoari buruzko plangintzaren helburuak eta irizpideak.
- Hiri-ingurunerako plangintzaren helburuak eta irizpideak.

Helburuak letra lodiz deskribatzen dira, **B.zk.zk.** izendapenarekin, eta horiek lortzeko irizpideak eta proposamenak beste azpizena batekin zerrendatzen dira: B.zk.zk.zk., letra arruntean.

Proposatutako helburuak eta irizpideak Aurrerapenaren dokumentuan hasieran sartutakoetatik abiatzen dira. Modu koherenteagoan berrantolatuta, osatu, biraztertu edo berregokitu egin dira, aurkeztutako iradokizunen artean dokumentuan txertatzeko merezi izan dutenak edota ingurumen-ebaluazioaren izapidean jasotako txosten sektorial berriak kontutan hartuta. Aldaketa horiek urdin kolorekoak idatzi dira, Aurreraketik egindako aldaketak errazago identifikatzeko. Era berean, Udalaren Lurralde Saileko Informazio Batzordeak hala eskatuta, udalaz gaidiko ekipamenduak ezartzea edo indartzeko erraztasunak emateari buruz egindako iradokizuna gehitu da, B.2.1.2 atalean jaso dena.

Behin betiko proiektuak, gainera, kontuan hartu beharko ditu iradokizunetan proposatu diren eta HAPOren antolamendua hobetzea ekar dezaketen gaiak.

B.2. Helburu eta irizpide orokorrak eta hiri-eredua

Erantzun beharko zaion udal-erri-eredua esku-hartze neurri egokiak zehaztean datza, herritarren bizikaltatea bermatzeko erronka eta helburu hauei erantzuteko:

B.2.1. Durangoren zentraltasuna sustatzea.

Eskualdeko Hiriburuaren edo Eremu Funtzionaleko Buruaren zeregina indarrarekin gauzatzea, inguruan eraginez eta alboko lurraldeari ere onurak eskainiz, helburua lortzeko, hurrengo irizpideak baliezteko neurri egokiak hartzea justifikatzen du:

B.2.1.1. Merkataritzari eta administrazioari dagokionez hirugarren sektore indartsua garatu.


B.2.1.2. Ekipamenduetan eta Parkeetan maila altuak lortzea. [Horretarako, planak udalaz gaidiko eskumenekoak diren zerbitzu publiko berriak ezartzea edo daudenak indartzea erraztuko du, hala nola osasun-, irakaskuntza-, kirol-, laguntza- edo kultura-zerbitzuak. Horretarako, eragindako administrazioei kontsulta egingo zaie Durangon gaur egun dituzten eta etorkizunean izango dituzten premiei buruz.](#)

B.2.1.3. Barneko erreformaren eragiketarako egiteko lurzorua eta ekonomia-jarduerako arloak sortzea eta balio erantsi altua duten ekonomiak erakartzea.

B.2.1.4. Egungo eta etorkizuneko aukera-eremuak identifikatu eta kudeatu, ekonomia-jarduera berriak hartzeko

B.2.2. Hiri konpaktu, jarraitu, trinko, konplexu eta kohesionatuaren garapenean aurrera egitea

Helburu hori lortzeko hurrengo irizpideak baliezteko neurri egokiak hartzea justifikatzen du:



- B.2.2.1. Planeamendua bideratu jardueran, bizitzan eta topaketan aberatsa den hiria lortzeko.
- B.2.2.2. Garapen sakabanatuak ekiditeko eta erabileren nahasketa sustatzeko.
- B.2.2.3. Planeamendua bideratu ekipamenduen sare orekatua lortzeko.
- B.2.2.4. Herritarren parte-hartzea sustatu eta genero-ikuspegia txertatu.

B.2.3. Etengabeko berroneratzea eta hiri-berritzea sustatzea

Helburu hori lortzeko hurrengo irizpideak balieztzeko neurri egokiak hartzea justifikatzen du:

- B.2.3.1. Zaharkituta geratu diren edo hiria hobetzeko beharrezkoak diren arloak berroneratzea.
- B.2.3.2. Hirigintza-ekintzak egitea (trena lurperatzeagatik libre geratutako eremuak, eremu libreen eta parkeen hobekuntza, irisgarritasunaren hobekuntza...).
- B.2.3.3. Klimaren arrisku eta zaurgarritasunetara egokitzea, pertsonen osasuna zainduz.

B.2.4. Eraldatuta dauden lurzoruak berrerabiltzea, luraren okupazioarako estrategia bezala.

- B.2.4.1. Industriako hondakinen lurzoruak erabiltzea bateragarriak diren jardueretarako.
- B.2.4.2. Plangintzan formula eta jarduketa urbanoak aurreikustea, sare berdea garatzeko helburuak betetzea, ibaien balioa indartzea, ibilgailuentzako eremua murriztea eta hiria berroneratu eta birgaitzea bideragarria izan dadin.
- B.2.4.3. Trenbide zaharra oinezkoentzako eremu eta sare berdearen ardatz bihurtzea.


B.2.5. Lurralde arteko harremana. Intermodalitatea hobetzea.

- B.2.5.1. Intermodalitatea hobetzea ahalbidetzen duten jarduketak aztertzea

B.3. Ingurumenako eta garapen jasangarriko helburu eta irizpideak

HAPO egiteko inspirazio-iturri izan behar duten iraunkortasun-printzipioen arabera, honako arau-artikulu hauetan ezarrita, zehazten dira atal honetako helburu eta irizpideak:

- 21/2013 Legearen 2. artikulua, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 1. eta 2. artikulua, 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, plan eta programen ingurumen-estrategiaren ebaluazioaren prozedura arautzen duena.
- 3. artikulua, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 3. eta 20. artikulua, 20ko 7/2015 Errege Lege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1. eta 3. artikulua, 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 2. eta 3. artikulua, 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko ondare naturalaren kontserbazioari buruzkoa.
- 2. artikulua, 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 1., 6. eta 17. artikulua, 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa.
- 3. artikulua, 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.
- 3., 99. eta 100. artikulua, 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Jasangarriari buruzkoa.
- 5. eta 7. artikulua, 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikaduraren Politikari buruzkoa.
- 5, 6. eta 7. artikulua, 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.




- 1, 2, 3, 8, 14 eta 21. artikulua, 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.

B.3.1. Objetivos ambientales y de desarrollo sostenible destacados:


1. Hiri Plangintzan agindu daitezkeen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzen direla bermatzea.
2. Lurraldearen erabilera orekatua lortzea.
3. Lurzoru berrien artifizializazioa mugatzea garapen urbanistikoak eta azpiegiturak ezartzeko.
4. Lurzoruaren kudeaketa optimoa lortzea kutsadura historikoa berreskuratuz eta kutsadura mota berrien prebentzioa eginez.
5. Pertsonen osasuna zaintzea eta pobrezia energetikoa murriztea.
6. Motordun ibilgailuen alferrikako erabilera murriztea. Pertsonen mugikortasun-eskaera kudeatzea, garraio modala hauetara bideratuta: oinez ibiltzera, bizikletara eta garraio kolektibora.
7. Hain motorizatuta ez dagoen mugikortasuna sustatzea: seguruagoa, osasungarriagoa eta hurbilagoa.
8. Energiaren kontsumoa murriztea, eta eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
9. Biodibertsitatearen galera saihestea, habitaten eta ekosistemen funtzionamendu jasangarria babestuz eta zaharberrituz. Lurraldean konektagarritasun ekologikoa hobetzea.
10. Baliabide naturalen kontsumo arduratsua sustatzea.
11. Hondakinen sorrera murriztea eta kudeaketa hobetzea.
12. Ur-masen egoera ekologiko egokia lortzea eta honda daitezen eragozteko.
13. Airearen kalitatea hobetzea.
14. Zarataren eta argiaren kutsadura prebenitu, zaindu eta murriztea.
15. Paisaien babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzea.
16. Arrisku natural eta teknologikorik ez sortzea edo, hala badagokio, ezabatzea.
17. Berotegi efektuko gas-isuriak mugatzea.
18. Klima-aldaketarako egokitzapena kudeatzea eta aurreikusitako eraginen zaurgarritasuna minimizatzea.

Helburu horiek lortzeko hurrengo irizpideak balieztzeko neurri egokiak hartzea justifikatzen du:

- B.3.1.1. Behar bezala justifikatu etxebizitzaren eta industriaren balizko garapen berrien eskaria eta dimentsionamendua. Planeamenduak erantzun beharreko beharrak zorrotz aztertzen dira, aurreikusitako garapenen gehiegizko dimentsionamendua saihestuz. Nolanahi ere, Plan Orokorra udalerriak garapen urbanistiko berrientzat duen harreraren azterketa jaso behar du.
- B.3.1.2. Dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruen erabilerari lehentasuna ematea, bereziki landa eta natur lurzoruak babestuz. Nekazaritzarako balio altua duten lurzoruak beste erabilera batzuetarako birkalifika daitezkeen ekiditea.
- B.3.1.3. Udalerriko hiriguneetan eraikitako eta urbanizatutako ondarea berroneratzea eta hutsik dauden etxebizitzak erabiltzea lehenestea.
- B.3.1.4. Kutsatutako lurzoruen berreskurapena lehenestea lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik.
- B.3.1.5. Hiri-segregazioa eta -sakabanatzea saihestea, erabilera edo jarduera desberdinen integrazio eta kohesio espazial egokiari eutsi ahal izateko, mugikortasunaren sorrera murrizte aldera.
- B.3.1.6. Hiri-egitura trinkoak, konpaktuak eta konplexuak sustatzea planteatutako beharrei erantzuteko. Eraikinen dentsitate nahiko altuak sortzea.
- B.3.1.7. Lurzoruaren erabilerak modu misto eta malguan planifikatzea.



- B.3.1.8. Garapen berriak kokatzea garraio publikorako edota auto pribatuaz bestelako garraiobideetarako irisgarritasun ona duten lurzoruetan.
- B.3.1.9. Iturri berriztagarrietatik datorren energian oinarritutako energia-hornidurarako sistema deszentralizatuen bidez energia hornidura bideragarria, erraza eta azkarra izango duten lurzoruetan garapen berriak kokatzea.
- B.3.1.10. Garapen berriak energia-efizientzia pasiborako baldintza egokiak dituzten lurzoruetan kokatzea.
- B.3.1.11. Garapen berriak uretako ingurunea, bertako zerbitzuak eta ingurunea kontserbatzea ahalbidetuko duten lurzoruetan kokatzea.
- B.3.1.12. Uholdeak izan ditzaketen eremuetan hirigintzako garapen berriak koka daitezen saihestea.
- B.3.1.13. Hirigintzako garapen berriek arrisku naturalak sor ditzaten edo, hala badagokio, eragotz ez ditzaten ekiditea.
- B.3.1.14. Egoera naturaleko ibilguen zuzenketa edo kanalizazioa ekiditea.
- B.3.1.15. Garapen berriak eskari berriei erantzuteko nahikoa ur-baliabide egotera baldintzatzea.
- B.3.1.16. Garapen berriak haietarako zerbitzu egokia bermatuko duten ur hornidura eta saneamendu sareetarako sarbidea duten lurzoruetan kokatu beharko dira.
- B.3.1.17. Komunitateko interesa duten habitatak honda daitezen ekiditea.
- B.3.1.18. Europako bisoiaren habitata zaindu, mantendu edo berreskuratzea, “desagertzeko arriskuan” dagoen espeziea baita eta berriki “egoera kritikoan” izendatu baitute.
- B.3.1.19. 213/2012 Dekretuan xedatutako kalitate akustikoari buruzko xedeen betekizuna bermatzea. Hala badagokio, arau subsidiarioetan antolamendu xehaturik ez duten garapen berriak eremu akustikoetan kokatuko dira, eta, aurreikuspenen arabera, eremu horietan bete beharko dira kalitate akustikoko helburu aplikagarriak.
- B.3.1.20. Lurzoru urbanizaezin osoa honako irizpide hauen arabera antolatzea:
- 2/2006 Legearen 13. artikuluko irizpideetara egokitzen diren lurzoruak lurzoru higiezin modura sailkatzea.
 - Plan Orokorrak 2/2006 Legeko 53.4. artikuluan adierazitako zehaztapenak jasoko ditu. Horri dagokionez, lurzoru ez urbanizagarrientzat Lurralde Ordenamenduko Gidalerroetan eta Durangoko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean ezarritako Antolamendurako Kategorien izendapenak eta irizpideak erabiltzen dituen kalifikazioa ezarriko da, eta aukera egongo da azpikategoria gehigarriak txertatzeko, udalerriaren ezaugarrien arabera.
- B.3.1.21. Udal plangintzak ibilguen ertzetan dauden lurzoru ez urbanizagarriei “Lur Gaineko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina” kategoria ezarriko die, EAEko Erreka eta Ibai Ertzak Antolatzeako Lurraldeko Plan Sektorialek (Kantauri isurialdea) eratorritako eremuekin batera. Lurrazaleko Uren Babeserako Lurzoru Urbanizaezin horiek Sektoreko Lurralde Plan horretako araudiaren F.1 ataleko 1. puntuan zehaztutako zabalera izango dute alde bakoitzean. Gainera, udal-plangintzak Sektoreko Lurralde Plan horretan zehaztutako irizpideak jaso beharko ditu, ibilguaren alde bakoitzeko 100 metroko zabalera bakoitzeko dagokionez.
- B.3.1.22. Lurzoru urbanizaezinen lurralde, paisaia eta funtzio egitura gordetzea eta elementu bereziak erabileren eta eraikuntzaren kalifikazio eta arauketa egokiaren bidez babestea.
- B.3.1.23. Paisaiaren egituraketa eta konektibitate elementuak mantentzea eta habitaten zatiketa kontrolatzea.
- B.3.1.24. Udalerriko azpiegitura berdea kontuan hartzea, eremu naturalen, erdinaturalen eta beste ingurumen-elementu batzuen sare gisa definitua, landa-inguruneetan eta hiri-inguruneetan dagoena, estrategikoki planifikatua, zerbitzu ekosistemikoen aukera zabalera emateko diseinatua eta kudeatua. Azpiegitura grisak helburu bakarra du, berdeak, aldiz, hainbat onura eskaintzen ditu.
- B.3.1.25. Udalerriko ondare historikoa, arkitektonikoa eta arkeologikoa babestea eta bultzatzea.



B.3.1.26. Baso autoktonoa eta txanda luzeko landaketak lehenesteko neurriak txertatzea, espezieak eta biodibertsitatea mantentzeko.

B.4. Ingurune fisikoaren plangintzaren helburuak betetzeko irizpideak

Helburu nagusietatik abiatuta eta ingurumeneko eta garapen jasangarriko irizpideak kontuan hartuz, ingurunearen gaineko plangintzaren helburu hauek zehaztu dira, eta beraiek lortzeko diagnostiko parte-hartzailetik abiatuta, aurrerakinaren faseko prozesu parte-hartzaileetan landutako irizpide eta proposamenak, zeinak Durangaldeko Eremu Funtzionaleko LPPko zehaztapen lotesleekin osatu edo kontrastatu diren:

Natura eta biodibertsitatea:

B.4.1. Hiriko berdeguneen eta ingurune naturalen arteko konektagarritasuna hobetzea.

- B.4.1.1. Durangoko sare-berdea garatzea.
- B.4.1.2. Pasabide ekologikoen sarea bermatzea, [azpiegitura berdearen elementu desberdinen arteko loturak lortzeko \(EAE, eremu funtzionala, lokala\)](#).

B.4.2. Lurzorua baliabide eskasa denez, ahal den heinean, landa-eremuko lurzoruak edo lurzoru naturalak ez okupatzea.

- B.4.2.1. Planaren aldaketa berririk ez egitea artifizializatu gabeko lurzoruei eragiten dienean, gaur egun artifizialduta dagoen lurzoruarekin edo hiri-lurzoruan dagoeneko onartuta dagoen planeamenduarekin antzemandako eskaerei erantzun ahal zaien bitartean.
- B.4.2.2. Ahal den heinean garatu ez den lurzoru urbanizagarria desklasifikatzea, hautemandako beharrei erantzuteko lurzoruak izan ezik.

B.4.3. Baso-masa publikoen baso-kudeaketa jasangarria.

- B.4.3.1. Tokiko espezie gehiago landatzea.
- B.4.3.2. Udalerriko basogintzaren politika horri balioa ematea eta gizarteratzea.
- B.4.3.3. Baso publikoen kudeaketa jasangarria egitea eta herritarren eskura uztea ahal den heinean.
- B.4.3.4. Kudeaketa pribaturako errentagarritasun ekonomikoa lortzeko moduak aztertzea eta, hala, lurzoruaren abandonua eragoztekoa.


B.4.4. LPPren zehaztapen lotesleak erantsi, ingurune fisikoa eta naturalari dagokionez.

- B.4.4.1. Lurzoruak babesteko kategoriak ezartzea eta ingurunearen gainjarritako baldintzak eta osagarri nabarmenak alboan ezartzea. Behar bezala zehaztutako erabileren matrizearen arabera arautzea.

Kultura eta paisaia-ondarea

B.4.5. Ibilbide turistikoak eta paisaiaren gozamena sustatzea

- B.4.5.1. Landa-eremuko bide publikoei balioa ematea.
- B.4.5.2. Hiri-ingurunea natura-ingurunearekin lotzen duten bidezidor ibilienetan bidezortasunak finkatzeko aukera aztertzea.



B.4.6. Ibaiaren balioa indartzea, bizi-kalitatea hobetzeko elementu gisa

- B.4.6.1. Mañaria ibaian jarduketak egitea, zabaltzeko jarduketaren ardatz nagusia baita.
- B.4.6.2. Uholdeen arriskua murrizteko ibaietan jarduketak egitea.

B.4.7. Kultur ondareari balioa ematea.

- B.4.7.1. Kultur ondarearen katalogoa berrikustea

Klima aldaketa

B.4.8. Klima-aldaketara egokitzeko neurriak txertatzea

- B.4.8.1. Hibaiei jabari publikoaren babesa, arau-erregulazioaren arabera.
- B.4.8.2. Uholde-arriskua murrizteko jarduketak
- B.4.8.3. Drainatze iraunkorreko sistemak sartzeari
- B.4.8.4. Hiriko lurzoruen iragazkortasuna areagotzea, klima-aldaketara egokitzeko irizpideen arabera (sare berde eta urdina).
- B.4.8.5. Ibaiak eta erriberak berroneratzea, naturan oinarritutako soluzioak erabiliz, isurien hustubide gisa.
- B.4.8.6. Hiri-eremuen eta saneamendu sistema orokorrek behar berriei zerbitzua emateko gaitasun egokia dutela egiaztatzea.
- B.4.8.7. Durangoko sare berdearen garapena, bai jarduketa berrietan, bai hiri-eremuen birgaitzean.
- B.4.8.8. Sare berdea da hiriko gainerako ehunduraren euskarri eta egitura (etxebizitzena, ekipamendua...).
- B.4.8.9. Klima-aldaketari egokitzeko jarduketak egitea, berroneratze berde eta urdinaren bitartez, eta hiriko lurzoruan bero-irak sortzea ekiditea.
- B.4.8.10. Auzoak berriztatze jarduketak, berdeguneetarako iragarritasuna handitzea eta sare berde interkonektatua, oinezkoentzako eta barneko bizikletentzako guneen lehenetsia emanez (superetxeak), ibilgailu motordunentzako espazioak murriztuz.


B.4.9. Klima-aldaketaren eraginak arintzeko neurriak txertatzea.

- B.4.9.1. Eraikinen birgaitzean eskari energetikoa murrizteko araudia aplikatzea.
- B.4.9.2. Iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpena areagotzeko jarduketak, erregai fosiletatik eratortzen diren negutegi efektua sortzen duten isuriak txikituz.
- B.4.9.3. Autokontsumo elektriko partekatua lortzeko jarduerak, soberakinak konpentsatuz.
- B.4.9.4. Ibilgailuen erabilera murrizteko jarduketak. Ibilgailuentzako eremua murrizteko hiri berritzea.

B.5. Hiri-ingurunearen plangintzari buruzko helburu eta irizpideak

Helburu nagusietatik abiatuta eta ingurumeneko eta garapen jasagarriko irizpideak kontuan hartuz, hiri-ingurunearen gaineko plangintzaren helburu hauek zehaztu dira, eta beraiek lortzeko diagnostiko parte-hartzailetik abiatuta, aurrerakinaren faseko prozesu parte-hartzailetan landutako irizpide eta proposamenak, zeinak Durangaldeko Eredu Funtzionaleko LPPko zehaztapen lotesleekin osatu edo kontrastatu diren:

Bizileku kopurua areagotzea



B.5.1. Etxebizitza irisgarria sustatzea.

- B.5.1.1. Etxebizitza hutsak merkatuan jartzeko jarduketak. Etxebizitzaren euskal legearen tresnen egoera eta ezarpenaren azterketa (etxebizitza hutsen aitorpena, kanona, behartutako alokairua, desjabetzea).
- B.5.1.2. Alokairu sozial gehien lortzeko legezko tresnak baliatzea.
- B.5.1.3. Birkalifikazioetan ahalik eta etxebizitza publiko gehien ezartzea.

B.5.2. Etxebizitzaren parkea optimizatzea, etxebizitza gehiago izateko.

- B.5.2.1. Merkataritzarako bokaziorik ez duten eremuetan lokala etxebizitzaren erabilera berrietarako erabili ahal izateko aukera aztertzea.
- B.5.2.2. Zuzkidura-jarduketak egitea, erabilerak bizitegi-erabilerara aldatzeko eta/edo etxebizitza kopurua handitzeko.
- B.5.2.3. Ekipamenduak edo etxebizitzaren erabilerarako aktibo ez dauden beste lurzoru batzuk birkalifikatzea, etxebizitzaren eta zerbitzuen arteko oreka baldin badago, betiere.

B.5.3. Beharrezko gutxieneko hazkundea izatea, jarduketan arloarekin bat egiten duten trinkotasuna duten jarduketak egiteko.

- B.5.3.1. Etxebizitzaren behararen inguruko azterketa egokitua.
- B.5.3.2. Jarduketa-eremu berriei aplikagarria den dentsitatearen inguruko azterketa egokitua, hainbat erabilerarekin (hirugarren sektorea, merkataritza...).

B.5.4. LPPren zehaztapen lotesleak erantsi, bizileku kopurua areagotzeko dagokionez

- B.5.4.1. LAGen eta LPPen irizpideen arabera kalkulaturako etxebizitza beharren kuantifikazioa. [Metabolismo demografikoari buruzko azterlanaren arabera, gutxienez 2.377 etxebizitzako bizitegi-hazkundea proposatzen da 2036. urterako. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako kalkularen arabera, edukiera ez litzateke 3.745 etxebizitzatik gorakoa izan behar \(datu hori HAPOri aplikatu dakioken denbora-tartearen arabera eguneratu beharko da\).](#)
- B.5.4.2. Erabilera mistoen eredua sustatzea, lurzoru berrietan, etxebizitzaren eremuan eraikitako azaleraren % 10 ekonomia-jardueretarako gordetzeko (industriarako, hirugarren sektorerako edo ekipamendu pribatuarentarako), eta horietan beharrezkotzat hartzen diren zuzkidura publikoarentarako.


B.5.5. Planaren kudeaketa egingarria

- B.5.5.1. [Gauzatze-egoera aurreratuan dauden eremuak ezagutzea, haien antolamendua errespetatuz.](#)

Hiri-berroneratzea

B.5.6. Birgaitzeko jarduketak behar dituzten auzoak edo eremuak identifikatzea.

- B.5.6.1. Zaurgarritasun-egoera okerragoa izan dezaketen auzoen azterketa (egoera txarra sozioekonomiari, ekipamenduei, zerbitzuei, eraikinen kalitateari eta hirietako azpiegiturei dagokienez).
- B.5.6.2. Lurzoruaren eta etxebizitzaren legeak ahalbidetzen dituen berroneratzeko eta birgaitzeko tresnak txertatzea.



B.5.7. Eraikinen birgaitzea sustatzea eta eraikita dagoena finkatu eta sustatzeko jarduketak egitea.

- B.5.7.1. Birgaitzeko legezko tresnak ezartzea (EIT, diziplina urbanistikoa, kontserbaziorako legezko betebeharra, etab.).

B.5.8. Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea

- B.5.8.1. Potentzialki kutsatuta dauden lurzoru publikoen esku-hartzea lehenestea, balizko erabileren arabera, kontuan izanik sare berdearen eta hiri berroneratzearen helburuak betetzeko duen bideragarritasuna eta garrantzia estrategikoa.

Mugikortasuna

B.5.9. Mugikortasuna planifikatu eta kudeatzea, alboko udalerriekin lotuta dagoen sarea lortzeko.

- B.5.9.1. Egungo bide-sarea behar bezala finkatzea eta Hegoaldeko bide-eraztunaren itxiera kudeatzea, erdigunea zeharkatu gabe auzoetara sartzea ahalbidetzeko eta zonetan ibilgailuen zirkulazioa murriztea ahalbidetzeko

B.5.10. Mugikortasun aukera ugariak lotzen dituen eta oinez eta bizikletaz egindako lekualdatzeak txertatzen dituen garraio-sarea lortzea, udalerri barruan motordun mugikortasuna murrizteko

- B.5.10.1. Ibilgailuarentzako eremua murrizteko hiria berritzea.
B.5.10.2. Auzoak birdiseinatzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako eremuei lehentasuna emateko (superetxadiak).
B.5.10.3. Bizikleten sarearekin edo garraio publikoarekin lotuta dauden aparkalekuetan zuzkidurak sortzea.
B.5.10.4. Hirigunean kalea eremu kolektiboa eta harremanetarakoa izateko ekimena.

B.5.11. Lurzoru urbanizaezinak herritarrei hurbiltzea erabili eta gozatzeko, oinez eta bizikletaz hiri kanpoko eremuetara heltzeko bideak hobetuz, eta udalerriko eta udalerri kanpoko ekipamenduekin lotuta dagoen oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea hobetuz.


- B.5.11.1. Udalerriko bidegorrien-sarea amaitzea, mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik lotura logikoarekin.
B.5.11.2. Irisgarritasunerako udal-plana egitea ibilbide lagunkoi eta osasungarriei dagokienez.

B.5.12. Oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea irisgarritasun-irizpideen arabera diseinatzea, herritar guztientzako erabilgarria eta irisgarria izateko, pertsonen mugikortasunerako eremu osasungarriak eta berdeak sustatuz.

- B.5.12.1. Sare berdea garatzea eta herritarren segmentu guztientzako erabilerak eskaintzea.

B.5.13. LPPren zehaztapen lotesleak erantsi, mugikortasunari dagokionez

- B.5.13.1. Durango zeharkatu eta lurreta eta Abadiño lotuko dituen garraio publikoaren plataforma bakarra ezartzea. [Durango, lurreta eta Abadiño lotzen dituen hiriarteko garraio publikoaren ardatzaren azpiegitura hobetze gisa interpretatuta.](#)
B.5.13.2. Tren-autobus intermodalerako eremua kokatzea. [Tren-bus intermodalitatea erraztuko duten oinezkoentzako espazioak sortzeko hiri-neurriak gauzatze gisa interpretatuta.](#)



Ekipamenduak eta zuzkidura publikoak

B.5.14. Eremu libreen eta berdeguneen sarea zabaltzea, herritar guztiei zerbitzu egokia eta jasangarria eskaintzeko, eta egungo ekipamenduen sarea hobetu eta egokitzea.

- B.5.14.1. Eskariari egokitutako ekipamenduak eta konektatuak dituzten eremu inklusiboak sortzea.
- B.5.14.2. Ekipamenduen lurzoruen helburua zehaztea.
- B.5.14.3. Ekipamenduen lurzoru zaharrak berdegune bihurtzeko aukerak aztertzea edo beste erabilera posible batzuk aztertzea, herritarren beharrak kontuan hartuta (bai gazteenak, bai adinekoenak).
- B.5.14.4. Garapen berrietan eremu libreen eta berdeguneen hurbiltasuna lortzea.
- B.5.14.5. Orain dauden eremu publikoak birpentsatzea eta berriak planifikatzea, ergonomiaren, irisgarritasunaren eta segurtasunaren gutxieneko irizpide berriekin.
- B.5.14.6. Garapen berrietako ekipamenduen egokitzapena eta irisgarritasuna aztertzea, batez ere osasunekoak, hezkuntzakoak, kirolekoak, kulturakoak eta ongizate sozialekoak.

B.5.15. LPPren arabera Zuzkidura-estrategiako ekintzak txertatzea

- B.5.15.1. Hezkuntza-ekipamendua indartzea. Gai honi buruz Hezkuntza Sailari kontsultatu beharko zaio.
- B.5.15.2. Gizarte-ongizateko ekipamendua indartzea.
- B.5.15.3. Kultura-ekipamendua indartzea

Jarduera ekonomikoa

B.5.16. Eguzkitzan industrigunea garatzea ahalbidetzea.

- B.5.16.1. Eguzkitzan lurzoru industrialak garatzeko aukera bideragarriak kudeatzea.

B.5.17. Etxebizitzekin eta hirugarren sektorearekin bateragarriak diren ekonomia-jarduerak txertatzea hiriko lurzoruan.

- B.5.17.1. LPPan horren inguruan ezarrita dagoen irizpidea betetzea.

B.5.18. Durango merkataritzarako eremu ireki, irisgarri, atsegin eta jasangarria izatea.

- B.5.18.1. Merkataritzako eta ostalaritzako sinergiak ahalik eta gehien aprobetxatzea. Merkatuaren plaza indartzea.


B.5.19. LPPren zehaztutako lotesleak.

- B.5.19.1. Ekonomia-jarduerarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea, 49,26 y 30,75 Ha hektarea arteko tartean.
- B.5.19.2. Lurzoruaren kontsumoa mugatze aldera, eraikitako ondarearen eta egun hutsik dauden lurzoruen optimizazioa kontuan izatea.

PERI-I Ferrocarril

B.5.20. Herritarrek PERI-I trenbidearen inguruan hartu duten erabakia aurrera eramatea.

- B.5.20.1. PERI-1 Trenbidearen eremuan eraikigarritasuna murriztea.



B.5.20.2. Eremu horren eta hiriko beste batzuen garapenerako baldintzak aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin izandako aurreakordioa bideratzeko.

Zeharko gaiak:

B.5.21. Irisgarritasuna. Zerbitzuen eta berdeguneen irisgarritasuna hobetzea

- B.5.21.1. Garapen berriak irisgarritasun hobea duten eremuetan sustatu beharko dira.
- B.5.21.2. Irisgarritasunerako udal-planaren jarduketak gitea ibilbide lagunkoi eta osasungarriei dagokienez.

B.5.22. Genero-ikuspegia. Plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko lanean zehaztuta diren irizpideak HAPOn sartzea:

- B.5.22.1. Artifizializatuak izan ez diren lurzoruetan etxebizitza berriak garatzea ekiditea, ahal den neurrian, zehazki udalerraren hegoaldean dauden lurzoru urbanizagarrietan.
- B.5.22.2. Etxebizitzan hiri-lurzoruan garapen berriak planifikatzeko prozesuetan genero-ikuspegia modu sistematikoan eta zeharka txertatzea.
- B.5.22.3. Egungo hiri-bilbea jostea:
- B.5.22.4. Auzoen arteko lotura, eguneroko ekipamenduak eta merkataritza-gune nagusiak hobetzea.
- B.5.22.5. Jarduera ugari gertu dauden eremu mistoak sustatzea.
- B.5.22.6. Oinezkoen mugikortasun autonomoa sustatu eta lehenestea.
- B.5.22.7. Kalea egoteko eta topatzeko toki gisa indartzea.
- B.5.22.8. Kaleak naturalizatu eta parkeen sarea hobetzea.

B.5.23. Osasuna. Airearen kalitatea hobetzea, herritarrengan zaratak duen eragina murriztea eta pertsona guztiek eremu berde zabaletarako irisgarritasuna izateko hobekuntzak egitea.


- B.5.23.1. Durangoko sare-berdea garatzea.
- B.5.23.2. Irisgarritasunerako udal-plana egitea ibilbide lagunkoi eta osasungarriei dagokienez.
- B.5.23.3. Auzoak birdiseinatzeko jarduketak, berdeguneetarako irisgarritasuna handitzea eta sare berde interkonektatua, oinezkoentzako eta barneko bizikletentzako guneei lehentasuna emanez (superetxadiak), ibilgailu motordunentzako espazioak murriztuz.

B.5.24. Euskera. Plangintzan eragin linguistikoa txertatzeko aukera aztertzea eta balizko aukeretan kontuan hartzea.

- B.5.24.1. Plangintzan eragin linguistikoaren inguruko araudia betetzea

Dokumentu hau Durangoko Udaleko zerbitzu teknikoek idatzi dute, eta 2022ko martxoan amaitu da.

Igor Zorrakin Pérez



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

.....
Bulego Tekniko
Oficina Técnica



Irizpide eta helburuak
Criterios y objetivos

HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE
ORDENACIÓN URBANA

Udal bulego teknikoaren
arkitekto burua